

## ARRASATE / Aurkeztu dute zine gida

**Gidan gehien errepikatzen den filma *El apartamento* da, Billy Wilder zinegilearena. Pelikula hori hiru aldiz aipatzen da gidan, eta aipamen gehien jasotzen dituen zinegilea ere *El apartamento*-ko egilea da; Billy Wilder, bost aipamenekin. Launa aipamenekin, berriz, Woody Allen eta Federico Fellini zinegileak aurkitzen dira.**

Zine gida argitaratzearen helburuak izan dira, batetik liburutegiak daukan bideoteka zerbitzua hornitzea gidan azaltzen diren izenburu horien pelikulekin, eta bestetik, formazioa eta erreferentziak ematea zinea gustuko duten pertsoneri.

Gidan azaltzen diren film gehienak Arrasateko liburutegian daude eta liburutegian eskuratu daitezke baita ere atzo aurkeztutako gidak; horrez gain, herriko beste hainbat tokitan ere eskuratu daitezke, esaterako, zerbitzu bulegoan eta gaztetxean.